


Euskal AEko industria-prezioak % 0,2 igo dira 2025eko uztailean aurreko hilaren aldean

2024ko uztailaren aldean, industria-prezioek % 0,4ko jaitsiera izan dute

Eustatek bildutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioek % 0,2 egin dute gora 2025eko uztailean, aurreko hilaren aldean. Uztaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 0,4 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2025eko uztailean, aurreko hilarekin alderatuta prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Erauzketa-industria* (% 6,8koa) eta *Zurgintza, papergintza eta arte grafikoak* (% 2koa) izan direla. Aitzitik, prezioetan hiletik hileraz igoera handienak izan dituzten sektoreak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,9koa) eta *Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea eta Ura* (biek % 1,7koa) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen sailkapenari jarraituz, eta 2025eko ekainarekin alderatuta, *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,7 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak % 0,9 jaitsi eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 0,1 igo izanaren ondorioz. *Ekipo-ondasunetan* eta *Bitarteko ondasunetan* % 0,1eko jaitsierak izan dira. *Energiaren* prezioa % 2,1 igo da.

Urte artean, 2025eko uztaila 2024ko uztailarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak izan dituzten adarrak dira *Farmazia-produktuen fabrikazioa*, % 10,3ko igoera, *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa*, % 9,5ekoa, eta *Material eta ekipo elektriko fabrikazioa*, % 8,1ekoa. Aitzitik, *Koke-lantegiak eta petrolio fintzea* adarreko prezioek urte arteko % 9,7ko jaitsiera izan dute eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* adarrekoek % 7,0koa.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,2	0,2	-0,4
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	133,3	-6,8	-3,2
Manufaktura-industria	116,4	0,0	-0,1
Elkadararen, edarien eta tabakoaren industria	127,4	0,0	1,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,1	0,0	0,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,7	-2,0	0,2
Kokeak eta petrolio fintzen	113,4	1,7	-9,7
Industria kimikoa	127,9	0,8	1,8
Botiken fabrikazioa	119,2	0,0	10,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	116,2	0,1	-0,8
Metalurgia eta produktu metalikoak	113,5	-0,2	1,2
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	124,1	0,4	9,5
Material eta ekipo elektriko fabrikazioa	123,1	0,3	8,1
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,8	-0,2	1,4
Garraioko materialen fabrikazioa	112,9	0,0	-0,5
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,3	-0,4	0,6
Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	65,7	2,9	-7,0
Ura	132,3	1,7	4,1
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	124,5	-0,7	3,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	114,3	0,1	1,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	127,3	-0,9	3,8
Ekipo-ondasunak	114,8	-0,1	1,4
Bitarteko ondasunak	116,4	-0,1	0,7
Energia	92,8	2,1	-8,5

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Abuztuaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde nagusien prezioen urte arteko aldakuntzak gora egin du *Kontsumo-ondasunetan*, eta % 3,2ko igoera izan du *Kontsumo-ondasun iraunkorretan* izandako % 1,1eko igoeraren eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorretan* izandako % 3,8ko igoeraren ondorioz. Prezioak % 1,4 igo dira *Ekipo-ondasunetan* 2024ko uztailarekin alderatuta. Bestalde,

Bitarteko ondasunetan prezioek urte arteko % 0,7ko igoera izan dute. Azkenik, *Energiaren* prezioek urte arteko % 8,5eko jaitsiera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten ahaleginagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **80,05eko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62